

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

## 3. MAILA

**AZTERKETA IDATZIA**

**2008ko MAIATZA**

**Ereduak**

**A B**

**Aztertzaileentzako orriak**



# HABE

## ZUZENKETARAKO OHARRAK

Azterketa bakoitzari **idatziaren ebaluazio-fitxa** edo emaitzen fitxa bat dagokio. Azterketaren puntuazioa neurketa-fitxa horretan idatzi behar da. Ikaslearen datuak fitxan idatzita izango ditu azterketaileak eta azterketaren barruan jasoko du fitxa hori.

Azterketaren batean fitxa falta bada, badaezpadako fitxa hutsak ere izango ditu, ikaslearen datuak eskuz bete eta puntuazioak bertan jartzeko.

Hiru trebetasunen emaitzak idatziko dira neurketa fitxan:

ENTZUMENA	gehienez, 20 puntu (gutxienez, 10)
GRAMATIKA ETA LEXIKOA	gehienez, 10 puntu (gutxienez, 5)
IDAZMENA	gehienez, 30 puntu (gutxienez, 15)
IRAKURMENA	gehienez, 10 puntu (gutxienez, 5)

Emaitzen orriak beteta eta azterketak zuzenduta itzuliko dira HABEra.

## Azterketaren puntuazioa 3 MAILA

### Entzumena

Entzungai bakarra da, bi ataletan banatua. Entzungaia bi aldiz entzungo da da.

Lehen atala, **2 puntu** erantzun zuzen bakoitzeko. **5** galdera dira. Denera, **10**.

Bigarren atala, **2 puntu** erantzun zuzen bakoitzeko. **5** galdera dira. Denera, **10**.

Denera, **20 puntu**, gehienez (gutxienez, 10).

### Gramatika eta lexikoa

#### Esaldiak berridatzi

10 esaldi dira. Erantzun zuzen bakoitzarekin **0,5 puntu** lortuko dira. Denera, **5 puntu**.

#### Baliokidea aukeratu

10 hitz dira. Erantzun zuzen bakoitzarekin **0,5 puntu** lortuko dira. Denera, **5 puntu**.

Denera, **10 puntu**, gehienez (gutxienez, 5).

### Irakurmena

3. mailan hiru testu irakurriko dira.

**Lehenengo testuak** egiteko bakarra du.

Egitekoa: erantzun zuzena aukeratu. 2 galdera dira. Erantzun zuzen bakoitzarekin **puntu 1** lortuko du. Denera, **2 puntu**.

**Bigarren testuak** egiteko bakarra du.

Egitekoa: erantzun zuzena aukeratu. 3 galdera dira. Erantzun zuzen bakoitzarekin **puntu 1** lortuko du. Denera, **3 puntu** (ebaluazio-orrian 2. testuari dagokion laukitxoan jarri).

**Hirugarren testuak** egiteko bakarra du.

Egitekoa: erantzun zuzena aukeratu. 5 galdera dira. Erantzun zuzen bakoitzarekin **puntu 1** lortuko du. Denera, **5 puntu** (ebaluazio-orrian 3. testuari dagokion laukitxoan jarri).

Hiru testuen artean **10 puntu** lor daitezke, gehienez (gutxienez, 5).

# HABE

## Idazmena zuzentzeko oharrak

Arkatza erabili akatsak azpimarratzeko.

Alboko ertzean jarri akatsari dagokion zeinua.

Zati luze eta traketsak ertzean marra bertikala jarrita seinatu.

Ez jarri zuzenketarik edo azalpenik idazlanean, are gutxiago iritzi edo iruzkinik.

Ez ezer azpimarratu.

Idazlanaren ertzetan laburdura hauek erabil litezke akats aipagarrientzat:

? ulergaitza, √ zerbait falta da, **dek** deklinabidea, **ad** aditza, **lex** lexikoa, **punt** puntuazioa, **sint** sintaxia, **erl** erlatibozkoa, **zg** zehar galdera, **nom** nominalizazioa, **konp** konparaziozkoa, **konpl** konpletiboa, **bal** baldintzazkoa, **ord** hitzen ordena, **kom** komunztadura, **lok** lokailua.

Kontuan izan ebaluazio-irizpideak eta, irizpide bakoitza baloratu ondoren (egitekoa bete duen, koherentzia eta kohesioa, gramatika eta hiztegiaren aberastasuna eta zuzentasuna), jarri azken emaitza.

Gehienez, **30** puntu. Gainditzeko, gutxienez **15** (ikus eranskina).

### Zuzenketa-irizpideak

#### ■ EGITEKOA BETE

Eskatutakoa zein neurritan bete duen:

- Komunikazio egoera eta diskurtso elementuak zaindu dituen
- Erregistroa
- Edukian: beharrezko informazioa aukeratu duen, argudio/adibide ugari/gutxi
- Gutxienerako hitz-kopurua

**Egitekoa:** Eman zaizkion bi gaietatik **bat** aukeratu behar du aldizkari batean argitaratzeko moduko artikulua idazteko. **1.gai.** Energia nuklearra, beharrezkoa ala arriskutsuegia? Gai horri buruz iritzia eman behar dute. Albiste baten zatitxoa dute, input moduan, Txernobilen gertatutakoa istripuz. Gainera, gaia garatzeko zenbait puntu dituzte energia nuklearraren alde eta kontra dauden jarrerak adierazten dituztenak. **2. gaia.** Haurren esplotazioa hirugarren munduan. Gai horri buruz iritzia eman behar dute. Albiste baten zatitxoa dute, input moduan, kirol-marka batzuek haurrak erabili zituztelako beren lantegietan. Gainera, gaia garatzeko zenbait puntu dituzte hirugarren munduko haurren egoera aurkezten dutenak.

Testu mota: azalpen-argudiozkoa. Formatoa: aldizkariko **artikulua**. Erregistroa: gehienbat, formala (testuingurua: euskaltegiko aldizkaria eta herriko aldizkaria dira).

Azterketariari azterketan bertan jakinarazi zaio testuaren aberastasuna eta zuzentasuna baloratuko zaizkiola.

Gidoia edo puntuak input moduan hartu behar dira. Ez dira denak nahitaez erabili behar, aukeran ematen zaizkio ikasleari.

#### ■ KOHERENTZIA ETA KOHESIOA

- Ideien eta egituren arteko lotura
- Testuaren egituratze orokorra, paragrafoen antolamendua

#### ■ GRAMATIKA ETA HIZTEGIAREN zuzentasuna eta aberastasuna

- Egitura aberatsak/sinpleak
- Lexiko zehatza eta adierazkorra/ desegokia edo urria

Hizkuntzaren erabileraren araberako kalifikazioa, hots, joskerazko (deklinabidea, aditza, perpausa) zuzentasunari dagokiona eta ortografia araei dagokiena.

Ebaluazio-orrian idatzi balorazioa eta puntuazioa, ez azterketan.

Ongi arrazoitu jarritako puntuazioa, batez ere *ez gai* baldin bada.

# HABE

## Entzumena, gramatika eta lexikoa, eta irakurmena

Hiru zati horien zuzenketak ongi idatzi ebaluazio-orreran. Puntuak ongi batu, eta **batuketa erreparatu**. Puntuazioa emateko edo erantzunen bat onartzeko zalantzarik baldin baduzu, galdetu tutoreari.

### **Birzuzenketak**

Aztertzailerak zalantza handiak baditu azterketa bati puntuazioa ematerakoan, hala adieraziko du eta birzuzenketa eskatuko du (ebaluazio-fitxan idatzita). Bere emaitza jarriko du, baina zalantzak dituela esango dio HABEri emaitzak eramaten dituenean. Azterketa hori beste aztertzailer bati emango zaio berriz zuzentzeko.

Gainerakoan, HABEK erabakiko du birzuzenketak nola egin. Birzuzenketak aurten ekainaren lehen eta bigarren astean egingo dira eta aztertzailer guztiek hartuko dute parte.

## HIRUGARREN MAILAKO AZTERKETA

### ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

#### HIRUGARREN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA:

<b>A zatia</b> <b>50</b> <b>(gutxienez 28)</b>	Idazmena	% 30	Gutxienez 15 puntu	30 puntu	1h 15 min
	Gramatika eta hiztegia	% 10	Gutxienez 5 puntu	10 puntu	25 min
	Irakurmena	% 10	Gutxienez 5 puntu	10 puntu	45 min
<b>B zatia</b> <b>50</b> <b>(gutxienez 27)</b>	Entzumena	% 20	Gutxienez 10 puntu	20 puntu	25 min
	Mintzamena	% 30	Gutxienez 15 puntu	30 puntu	10 min
GUZTIRA		%100	Gutxienez 55 puntu	100 puntu	

Agiria eskuratzeko gutxienez 55 puntu beharko dituzu denera eta 28 eta 27 proba bakoitzean. Agiria eskuratzeko ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) gai izatea. Emaitza bakarra emango da: **GAI/ EZ GAI**.

**Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:**

**EGITEKOA BETE.** Komunikazio-egoera eta diskurtso-elementuak. Erregistroa. Edukia. Hitz kopurua.  
**KOHERENTZIA ETA KOHESIOA.** Ideien eta egituren arteko lotura. Testuaren egituratzea. Paragrafoen antolamendua.  
**GRAMATIKA ETA HIZTEGIAREN ABERASTASUNA ETA ZUZENTASUNA.** Gramatika egiturak. Lexikoa. Joskera. Ortografia.

**HABE**

# HABE

## A EREDUA

### ENTZUMENA

A eredua	1	A	2	C	3	D	4	C	5	B
	6	D	7	B	8	B	9	A	10	A

### ESALDIAK BERRIDATZI (Erantzunak)

- 1.- **Haiek** (bai) neska politak, taberna haietan ibiltzen zirenak!
- 2.- Barkatu, baina ez dugu eskatutakoa ekartzerik izan, ez dugu prestatzeko astirik izan **eta**.
- 3.- **Albait** arinen (*azkarren / lasterren ...*) amaitu behar dugu lan hau, etxeratu aurretik kafetxo bana hartuko badugu.
- 4.- Distantzia/urruntasuna **gorabehera**, astebururo etortzen omen da bisitan.
- 5.- Hona hemen Aitorrek eta biok iaz Pirinioetan eskiatzen elkar ezagutu genueneko argazkiak!
- 6.- Ikasleek gaur bertan asanbladan erabaki dutenaren (*erabakitakoaren*) **arabera**, datorren asterako greba-deialdia egingo dute (*da*) EHUko campus guztietan.
- 7.- Hainbesteko ezinikusia dio, **non** edozer egiteko prest egoten baita (den) berarekin lanik ez egitearren.
- 8.- Gaur egun, ez daukagu (dugu) **zertan** paperezko egunkariak erosten ibili(rik), nahi adina egunkari **irakur** baititzakegu Interneten.
- 9.- Kontrakoa dirudien arren, nagusitxo askok hainbat gaztek **besteko** trebetasuna dute kirolean.
- 10.- Emaztearen gurasoek deitu digute aurtengo neguan eurei bisita egitera **joan** gaitezen (gakizkien), Boisen duten etxera, hain zuzen.

### LEXIKOA

A eredua	1	B	2	A	3	A	4	B	5	B
	6	C	7	D	8	C	9	B	10	D

### IRAKURMENA

A	1	B	2	B	3	B	4	B	5	A
	6	B	7	C	8	A	9	C	10	C

# HABE

eredua					
--------	--	--	--	--	--

## B EREDUA

### ENTZUMENA

B eredua	1	C	2	D	3	A	4	D	5	C
	6	A	7	C	8	A	9	C	10	B

- 1.- **Albait** arinen (*azkarren / lasterren ...*) amaitu behar dugu lan hau, etxeratu aurretik kafetxo bana hartu**ko** badugu.
- 2.- Distantzia/urruntasuna **gorabehera**, astebururo etortzen omen da bisitan.
- 3.- **Haiek** (bai) neska politak, taberna haietan ibiltzen zirenak!
- 4.- Barkatu, baina ez dugu eskatutakoa ekart**zerik** izan, ez dugu prestatzeko astirik izan **eta**.
- 5.- Kontrakoa dirudien arren, nagusitxo askok hainbat gaztek **besteko** trebetasuna dute kirolean.
- 6.- Emaztearen gurasoek deitu digute aurtengo neguan eurei bisita egitera **joan** gaitezen (gakizkien), Boisen duten etxera, hain zuzen.
- 7.- Hona hemen Aitorrek eta biok iaz Pirinioetan eskiatzen elkar ezagutu genuen**eko** argazkiak!
- 8.- Ikasleek gaur bertan asanbladan erabaki dutenaren (*erabakitakoaren*) **arabera**, datorren asterako greba-deialdia egingo dute (*da*) EHUko campus guztietan.
- 9.- Gaur egun, ez daukagu (dugu) **zertan** paperezko egunkariak erosten ibili(rik), nahi adina egunkari **irakur** baititzakegu Interneten
- 10.- Hainbesteko ezinikusia dio, **non** edozer egiteko prest egoten baita (den) berarekin lanik ez egitearren.

### LEXIKOA

B eredua	1	D	2	C	3	B	4	D	5	C
	6	A	7	C	8	A	9	C	10	B

### IRAKURMENA

B eredua	1	A	2	C	3	A	4	C	5	B
	6	C	7	A	8	B	9	A	10	B

**HABE**